

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO UDALAK FAMILIA BAKARREKO GURASOENTZAKO ONARTZEN DITUEN PREZIO PUBLIKOAK

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Zerbitzu Orokorretarako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hamarkadetan asko aldatu da gure gizartean zegoen familia eredua eta gaur egun familia mota ezberdinak daude gure artean. Horietako bat guraso bakarreko familiak ditugu. Gaur egungo etxebizitzaren %10 eta adin txikiko haurrak dauzkaten etxebizitzaren %14,6 izatera iritsi dira. Gainera, guraso bakarreko familien ia %90 emakumeek gidatutako familiak dira.

Familia mota hau errealitatea bada ere, erakundeen aurrean erabat ikusezinak dira, ez baitzaizkie onartzen beste familia mota batzuei onartzen zaizkien eskubideak. Gure hirian, kasu, guraso bakarreko familien aldeko trataera behin baino gehiagotan Udalbatzan eztabaidatu eta zenbait prezio publikotan aintzat hartzeko erabakiak hartu diren arren, udal barruan ez da gai hau behar bezala kudeatu, eta egun, irizpide ezberdinak eta hutsuneak dituzten prezio publikoak onartu dira.

Familia mota hauen izaera onartu behar da, eta begien bistakoa da hori ez dela Udalaren eskumena, baina udalek har ditzakete familia hauen aldeko erabakiak eta, edonola ere, kasu guztietan koherentzia mantendu behar da.

Bestalde, orain arte udala, guraso bakarreko familien definizioan "beste gurasorik ez izateagatik edo alarguna izateagatik" irizpidera mugatzen ari da. Abandonu, indarkeria matxista, adostutako ekarpen ekonomikoarekin ez betetzea edo eta askatasun gabezia egotea bezalako irizpideak jasotzen ez direla. Horrek hutsune ugari eta diskriminazio kasu ugari sortu dezakeela uste dugu.

Hori guztia dela eta, aurkezten dut honako

KONTROL MOZIOA

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari koordinatu dezala bai udal barruan bai bere erakunde autonomoetan guraso bakarreko familientzat onartzen diren prezio publikoen inguruko erabakiak, kasu guztietan irizpide berdinak aplikatu daitezten.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal barruan eta erakunde autonomoetan onartzen diren guraso bakarreko familientzako prezio publikoen irizpideetan “abandoua, indarkeria matxista, adostutako ekarpen ekonomikoa ez betetzea edo/eta askatasun gabezia egotea”-ri erantzuten dioten egoerak jasotzea.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Naiara Sampedro Perez

EH Bildu udal taldeko zinegotzia